


Giltzurrun-polikistosi autosomiko gainartzailea



*Gaixotasun sendaezina, baina
saihestu daitekeena*




**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Zer da?

Herentziazko gaixotasun kronikoa eta progresiboa da. Giltzurrunei eragiten die, eta pairatzen duten pazienteen %50 inguruk dialisia behar du, horrek daukan **inpaktu fisikoarekin zein psikologikoarekin**.



Gaixotasun hori daukaten pertso-
nei giltzurrunetan kisteak azaltzen zaizkie, bizitzan zehar, kopuruz eta tamainaz hazi egingo direnak.


Zelan transmititzen da?

Gurasoengandik seme-alabengana, gene bidez, eta ondo-
rengok izan dezaten probabilitatea %50ekoa da.



Sarritan azaltzen al da?

Bai, gure inguruan 800 pertsonatik 1ek dauka gaixotasuna.



Tratamendua al dauka?

Gaur egun, ez dauka sendabiderik, baina gaixotasunaren bilakaera geldotzen laguntzen duen medikamentua badago.

Gaixotasun hori daukan pertsonak zelako ezaugarriak dauzka?

1. Ohikoena da sendieren batek “giltzurruneko arazoak” izatea edo dialisia egiten duen familiako kideren bat.
2. Giltzurrun-polikistosi iragartzen duten giltzurruneko kisteak edukitzea. Kiste sinpleek ez dakarte nahitaez Polikistosi.
3. Giltzurruneko gutxiegitasuna adierazten duten datu analitikoak.
4. Giltzurrun-polikistosiaren kasuan, ohikoa da oso gerneru-infekzioak izatea.
5. Giltzurruneko kolikoak, harriek zein kiste konplikatuak eraginda.
6. Txiza egitean odola botatzea
7. Presio arteriala areagotzea

Zerrendatutako ezaugarri/sintoma horietatik asko ez dira gaixotasun honen seinaleak soilik, eta horiek izateak ez du esan nahi Polikistosi daukagunik.

Gaixotasuna ez da sendatzen, saihestu dezagun! Nola?

Gaur egun badago ezarpenaren aurreko diagnostiko genetikoa deritzon teknika, eta horren bidez, giltzurruneko gaixotasun polikistikoa duten gaixoen haur osasuntsuak izan ditzakete, gaixotasuna heredatu gabe.

**Gaixotasun hau izan dezakezula uste baduzu, zure
famiako medikuari galdetu iezaiozu.**


Prestatu du:

■ Barrualde-Galdakao ESIko Nefrologia Zerbitzuak

Lankidetz:



Poliquistosis renal autosómica dominante



Una enfermedad incurable pero potencialmente erradicable



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

¿Qué es?

Es una enfermedad hereditaria, crónica y progresiva. Afecta básicamente a los riñones y lleva a diálisis a la mitad de los y las pacientes que la padecen, con el consiguiente **impacto tanto físico como psicológico**.



Se caracteriza por la aparición de quistes en los riñones u otros órganos, que van creciendo en número y tamaño a lo largo de la vida.


¿Cómo se transmite?

Se transmite de padres a hijos a través de los genes y la probabilidad de que la herede la descendencia es del 50%



¿Es frecuente?

Sí, en nuestro medio 1 de cada 800 personas presenta la enfermedad.



¿Tiene tratamiento?

Actualmente, no tiene cura pero existe un medicamento que enlentece la evolución de la enfermedad.

¿Qué características puede presentar una persona que padece la enfermedad?

1. Lo más habitual es que posea algún miembro de su familia con “problemas renales” o en diálisis
2. Que tenga quistes en los riñones sugestivos de Poliquistosis renal. Los quistes simples no implican Poliquistosis
3. Datos analíticos de Insuficiencia renal
4. En la Poliquistosis renal son muy frecuentes las infecciones urinarias
5. Cólicos renales, tanto por cálculos como por quistes complicados
6. Orinar con sangre
7. Aumento de la presión arterial

Muchos de estos hallazgos no son exclusivos de esta enfermedad y presentarlos no significa obligatoriamente que la persona padezca Poliquistosis.

¿La enfermedad no se cura, evitémosla! ¿Cómo?

Actualmente existe una técnica denominada diagnóstico genético preimplantacional mediante la cual, las personas enfermas de Poliquistosis renal pueden tener hijos e hijas sanas que no hereden la enfermedad.

Si usted cree que puede tener esta enfermedad contacte con su médico/a de familia

Elaborado por:

■ Servicio de Nefrología de la OSI Barrualde-Galdakao

En colaboración con:

